

HAUTESKUNDE PROGRAMA HAUTESKUNDE AUTONOMIKOAK 2012

PROGRAMA ELECTORAL ELECCIONES AUTONÓMICAS 2012

100

Proposamen Euskadi
ezkertiarra helburu
Propuestas para una
Euskadi de izquierdas

Socialismo Sindikalismoa **Revolución** Internazionalismoa
Pacifismo **Ekologismoa** República **Antikapitalismoa**
Federalidad Feminismoa **Sozialismoa** **Sindicalismo**
Iraultza **Internazionalismo** **Bakezaletasuna** **Ecologismo**
Errepublikak **Anticapitalismo** **Feminismo** **Federalitasuna**



izquierda **unida**-los verdes

ezker anitza

Aurkibidea

| | |
|--|----|
| Enplegu duindun Euskadi baterako proposamenak | 3 |
| Etxebizitza publikoa eta irisgarria duen Euskadi baterako proposamenak | 3 |
| Beharrian sozialak betetzen dituen fiskaltasun bidezko eta progresibodun Euskadi baterako proposamenak | 4 |
| Bakean dagoen Euskadi baterako proposamenak..... | 4 |
| Euskadi Errepublikar, Federal eta Laiko baterako proposamenak..... | 5 |
| Bestelako eredu instituzionala duen Euskadi baterako proposamenak..... | 5 |
| Hezkuntza publiko eta kalitatezkoduna duen Euskadi baten aldeko proposamenak..... | 6 |
| Osasun sistema publiko eta doakodun Euskadirako proposamenak..... | 6 |
| Euskadi ekologistarako proposamenak..... | 7 |
| Euskadi feministarako proposamenak..... | 7 |
| Euskadi Sozial baterako proposamenak..... | 8 |
| Beste eredu ekonomiko eta produktiboa duen Euskadirako proposamenak | 8 |
| Gazteena ere den Euskadirako proposamenak | 9 |
| Euskadi integratzaile baterako proposamenak | 9 |
| Euskadi kulturantz eta eleanitz baterako proposamenak..... | 10 |
| Elkartasunean oinarritutako Euskadi baterako proposamenak..... | 10 |
| Euskadi parte-hartzaile baterako proposamenak | 11 |
| Haurrak zaindu eta pertsona nagusiak errespetatzen dituen Euskadi baterako proposamenak | 11 |
| Euskadi jasangarri baterako proposamenak..... | 12 |
| Irisgarritasun unibertsalek inklusiboa den Euskadi baterako proposamenak..... | 12 |

Enplegu duindun Euskadi baterako proposamenak

1. Soldata murrizketarik gabe, 35 orduko lan astea ezartzea, enplegua sortzeko eta errenta banatzeko neurri bezala, bai sektore publikoan zein pribatuan.
2. Zapatero-ren eta Rajoy-ren gobernuek onartutako lan erreformen aplikazio eza, eta enpresarien partetik gehiegikeria borrokatzeko lan inspekzioen handitzea.
3. Langabeziaren aurka borrokatzeko plana, menpekotasunarekin, hezkuntzarekin, osasunarekin, energia berriztagarriekin, kooperatibekin eta garraio publikoarekin erlazionatutako zerbitzu publikoetan gastua handituz.
4. Enplegatu publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legea, lan baldintzen negoziazioa eta adostutakoaren betetzea bermatzeko.
5. Kooperatibismoaren sustapena, eta kirian dauden enpresak berreskuratzeko langileei babesaren eskaintza. "Guztien ongizatearen ekonomiaren" ekimenei babesa.

Etxebizitza publikoa eta irisgarria duen Euskadi baterako proposamenak

6. Etxebizitza duin baterako eskubide hiritarraren bermerako Legea.
7. Banku eta kutxei hipoteka ordaindu ezinagatik lehen etxebizitzatik kaleratze prozesu guztiak geldiaraztea, hiritar guztiei etxebizitzarako eskubidea bermatu arte.
8. Gorte Orokorretan Prozedura Kriminalerako Legearen Erreformatarako Proposamena, etxebizitzatik kaleratzeari dagokionean, atzeraeraginezko izaeraz, hipotekatutako ondarea bueltatuta zorra kitatzeko mekanismoa ezartzeko.
9. Banka eta promotoreek gaur egun dituzten etxebizitza stock-ak Administrazio Publikoak kostu salneurrian erosita, gizarte alokairupean kudeatutako etxebizitza parke publiko baten sorketa. Parke horri, hutsik egonda desjabetutako etxebizitzak gehitu beharko lekizkioke.
10. Eusko Jaurlaritzak kudeatutako alokairu sozial parkean ez jartzekotan, finantza erakunde ezberdinek hutsik dituzten etxebizitzentzako zerga berezia ezartzea.

Beharrizan sozialak betetzen dituen fiskaltasun bidezko eta progresibodun Euskadi baterako proposamenak

- 11.** Iruzur fiskalaren aurkako borroka plana, datu baseak bateratuz eta hiru ogasun foralen inspezio taldeak bateratuz. Estatuto Agentzia Tributarioarekin eta bestelako herrialdeetako ogasunekin kooperatuz, paradisu fiskalekin amaitzeko helburuarekin.
- 12.** Finantza eta burtsa espekulazioari penalizazioa, Tobin Tasa instituzionalki babestuz, pensio planek gaur egun duten PFEZaren dedukzioa eliminatuz. Burbuila inbiliararioaren aurka, tramuka etxebizitza erosketa dela eta 400 milioi euroko dedukzioak deusezpea, hutsik dauden etxebizitzaren gainetako tasa bat sortuz.
- 13.** PFEZaren gehiengoko tipoa %75 igotzea (Frantzian bezala) eta kapitalaren eta lanaren errentak berdintzea. Aberastasunaren gaineko zergak sortzea, Ondasunen gaineko zergak handituz eta herentzian handien gaineko zerga berreskuratuz.
- 14.** Elkarteen gaineko zergan tipo nominalaren handitzea (%28tik %35era) eta praktikoki ordaindutakoaren handitzea existitzen diren dedukzioen murrizketa martxan jarriz, urtean gastu fisikaletan 600 milioi euro suposatzen baitute.
- 15.** Banka publiko baten sorrera, enpresa txiki eta ertainei, autonomo eta familiei kreditua errazteko. Honen kudeaketa ereduak, edozein operazio espekulatibo eta paradisu fiskalekin zer ikusia duenik baztertu egin behar da.

Bakean dagoen Euskadi baterako proposamenak

- 16.** Kausa politiko bat ere, ezin daiteke oinarritzko printzipio etikoen eta Giza Eskubideen gainetik kokatu. Elkarrizketa da edozein gatazkaren konponbiderako bide bakarra.
- 17.** ETaren desagerpenaren exigentzia eta biktimei sortutako minaren onarpena. Terrorismoaren eta motibazio politikodun edozein biolentziaren biktimei babesa, errespetua eta errekonozimendua.
- 18.** Oroimen, elkarbizitzaren eta Giza Eskubideen aldeko Institutoa martxan jartzea, memoria eta elkarbizitza politiken barnean diktadura frankistaren biktimak sartuz.
- 19.** Presoen eskubideen aldeko defentsa.

20. Gorte Orokorretan Lege proposamena, azken hamarkadetan onartutako eszepzio lege eta auzitegian derogatzeko, hala nola, Alderdien Legea, Auzitegi Nazional, edo 77ko Amnistia Legea.

Euskadi Errepublikar, Federal eta Laiko baterako proposamenak

21. Gorte Orokorretan Monarkiaren inguruko erreferendum baten aldeko lege proposamen baten aurkezpena
22. Espainiar Estaturako eredu Federal solidario baten defentsa, autodeterminazioan oinarrituta, Estatu espainoleko hiritar eta herriei irekitako prozesu baten parte moduan.
23. Espainiar Konstituzioaren erreforma, Estatuko Erkidego Federatu bakoitzak, paktu federalean, aske, konstituzio federalean agertzen diren eskuduntzak bere gain hartu edo Estatu federalean delegatzeko aukera izan dezan.
24. Nazionalitateen arteko elkartasunean oinarritutako eredu artikulatzea, estatuko hizkuntza eta aniztasun kulturala errespetatuz, beti ere, ikuspegi internazionalista batetik.
25. Estatu legedia aldatzea, Eliza Katolikoari trataera ezberdin eta pribilegiozkoa ematen diotenak. Elizarekin konkordatua eta akordio bereziak aldatzea. Bestalde, laizismoa oinarritzko eredutzat hartuko dugu gure legislazioan eta araudian, konfesio erlijioso ezberdinei trataera berdina emanez.

Bestelako eredu instituzionala duen Euskadi baterako proposamenak

26. Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan, barruti bakarra ezartzea, hautatzen diren 75 legebiltzarkideak hiritar guztiek aukeratu ditzaten.
27. D'Hont legea deritzonari zuzenketa faktore bat ezartzea, hautesleen borondatea argiago eta fidelago azalduz.
28. LHL-aren erreforma, Foru Aldundien paperari bestelako orientazioa emateko, udalerriei laguntza eta babesa eskaintzeko rol bat hartuz, eta Autonomi Erkidegoari eskuduntzak transferituz, bereziki, eskuduntza fiskalak Eusko Legebiltzarri emanez.

29. Euskal Udal Legea, udalen autonomia eta finantziarioa bermatzeko, PPren Gobernutik egiten zaizkien erasoen aurrean.
30. Erakundeetan gastu politikoa arautu eta mugatzea: Liberazioak, alkate eta zinegotzien soldatak, pentsio planak, langabezia, etab...Legez kargu publikoen soldatak mugatzea.

Hezkuntza publiko eta kalitatezkoduna duen Euskadi baten aldeko proposamenak

31. Hezkuntza laikoa; erlijio irakasgaia deuseztatu eta sexuen arteko berdintasuna bermatu ahal izateko Hezkuntza Publikoaren aldeko apustua.
32. Titulartasun eta kudeaketa publikoko zentroen sare aski eta planifikatua, itundutako eredu gradualki desagerraraziko duen hainbat urtetarako plana garatuz.
33. 0 eta 18 urte arteko hezkuntzaren unibertsaltasuna, elehirudun baten alde, beti ere Euskadiko bi hizkuntza ofizialen ezaguera bermatuz.
34. Ikerketarako laguntza eta beka-sistema osoa.
35. Ikaslegoaren hautaketa edo diskriminazioa praktikatzan duten edo araudia betetzen ez duten zentroekin itunak deuseztatu eta ideario propioa duten hezkuntza zentroi diru-laguntzak ematea saihestu.

Osasun sistema publiko eta doakodun Euskadirako proposamenak

36. Estaldura unibertsaleko osasuna eta osasun-zerbitzuen hedatzea hauetan odontologia eta oftalmologia zerbitzuak gehituz, besteak beste, herritar guztien eskubide izanik, hauen nazionalitatea edo Gizarte Segurantzako kotizatzaileak diren ala ez alde batera utzirik. Titulartasun eta gestio publikoko osasuna. Privatizazioari eta laguntza publiko duen publiko/pribatu sare bikoitzaren garapenari uko eginez.
37. Hainbat urterako plana non osasun-sistema kontzertatuarekin bukatu eta, ondorioz, sistema publikoaren kalitatearen eta buru aski izatearen hondatzearekin bukatzeko.
38. Finantziaketa publikoa, buruaskia eta ezarpen-solidarioaren bidez, osasunaren doakotasuna bermatu, "Berordainketaren" eta sendagaiak eta zerbitzuak estalketa publikotik kanpo geratzearen aurka.

39. Aitortutako eskubideen erabileraren bermea -abortua, sexu-aldaketa, e.a.- 16 urte baino zaharragoentzat sistema publikoko prestaziotzat, mugarik gabekoa izanez osasun-arloko kontzientzia-eragozpen eskubidearen arauketa burutuz.
40. Osasun-sistemako erabiltzaileen asoziazionismoa eta benetako parte-hartzea sustatu. Hauen erabakia errespetatzea heriotza duina bermatzea da, eutanasia aktiboa barne.

Euskadi ekologistarako proposamenak

41. Energia-ereduaren aldaketa, energia fosilen erabilera eta aurrezpen energetikoa xede duen energia-iturri berriztagarrien plana garatuz.
42. Zabor-bilketa ekologikoagoak babesten dituen Hondakinen legea eta produktuen paketatua eta enbalaietan birtziklatu ezin diren produktuak erabiltzea zigortzen dituen Enbalai-, Paketatze- eta Produktu Merkaturatze-legea, zero zabor objektiboaren bidea jarraituz.
43. “Fracking” izeneko teknika guztiz deuseztatzea honek suposatzen duen gehiegizko arriskuarengatik (pozoitutako akuiferoak, airearen kontaminazio larria, lurrikara arriskua, e.a.) eta baita energia nuklearra ere (Garofiako zentral nuklearra itxiz).
44. Euskadiko etxebizitza-parkearen errehabilitazio ekologikorako programa
45. Animalien babeserako lege berria, salbuespenak deuseztatzen dituena, zezenketen ingurukoak, bereziki.

Euskadi feministarako proposamenak

46. Emakumearen Saila sortzea, sail guztietarako zehar-politikak egingo dituen. Genero-indarkeriaren aurkako borroka lehentasuna izan behar du.
47. EAEko Aurrekontu Orokorren %5 baino gutxiago ez diren aurrekontu-sailak, berdintasunerako politikak eta normatibak aurrera eramateko xedearekin.
48. Elkarte feministek eta berdintasunaren aldeko emakumeek osatutako Kontseilu Autonomiko baten sorrera; berdintasunaren aldeko politika espezifikokoak eta zeharkakoak sortu eta lantzeko oinarrizko elementu bezela.
49. Genero-berdintasunaren eta lan-bizitza eta familiarra kontziliazioaren aldeko Plan espezifikoa sortu, Enplegu-planen barruan, udaletxeak, sindikatuak eta patronala lan honetan sartuz.

50. Lan munduan emakumeen berdintasuna lortzeko neurriak sustatu, segregazio okupazionala, prekaritatea eta soldaten desberdintasuna zuzentzeko proposamenen bidez.

Euskadi Sozial baterako proposamenak

51. Diru Sarreraren Bermerako Errenta Legearen erreforma, legealdi honetan era progresiboan "Oinarrizko Errenta" bat lortzeko zein lan merkatutik at dauden 23 urte baino gehiagoko eta familia ardurak dituzten 18 urtetik gorako pertsonen benetako beharrianak bete egiten dituen. Euskadin dugun bataz-besteko soldataren %60ra heltzen den errenta, ohiko egoitza Euskadin izatea eta gutxienez urte betez erroldatuta egotea soilik eskatzen duena.
52. Zerbitzu Sozialek Euskal Legean onartutako zerbitzu eta prestazioen titulartasun publikoaren defentsa. Kudeaketa publikoa nahitaezkoa, bere barnean etekin ekonomikorako helbururik ez duen hirugarren sektoreko gizarte ekimena sartuz.
53. Benetako hostatu kobertura eta arreta bermatzea iragaitzazko bidariei, infraetxebizitza edo eskalei zuzendua Eusko Jaurlaritzak koordinatutako eta udalerriek garatutako plan baten bitartez.
54. Dependentsia Legearen garapena, ekonomikoki doituz eta eskubidedun enplegu egonkorra sortuz.
55. Zerbitzu Sozialen Katalogoa garatzea, eskuduntzak dituzten euskal administrazioek bermatu beharreko prestazio ekonomiko eta zerbitzuak aurreikusteko.

Beste eredu ekonomiko eta produktiboa duen Euskadirako proposamenak

56. Biraktibatze ekonomikorako plan baten garapen eta abiaraztea, euskal ekonomiaren sektore estrategikoak zehaztuz.
57. Iraunkortasunaren aldeko I+D+i apustu segurua.
58. Publikoa dena eta honek ekonomian jokatzen duen papera babestu eta bultzatu, lan publikoaren sorreraren, fiskalitatearen eta inbertsioaren bitartez.
59. Langileek enpresen kudeaketan parte har dezaten sustatzea, baita kapitalean ere. (kooperatibismoa, ongizate orokorraren ekonomia).

60. Zaharkituta dagoen produkzio-eredua transformatzeko indar politiko eta sindikalen arteko planaren garapen eta abiaraztea.

Gazteena ere den Euskadirako proposamenak

61. Gazteen integrazioa lortzeko, hezkuntza benetako eragile bihurtu.
62. Gazte-kolektiboei ahotsa ematen dien eta sistema kapitalista patriarkalak gazteei eragindako herritartasun defizitak konpontzen dituen Gazteriaren lege berria.
63. Aisialdi kultural eta hezitzailea sustatzea, eskaintza barietatea, ordutegi malguak eta garraio baliabideak bermatuz. Eskaintza kultural pribatuak jasaten duen masifikazioa saihesteko, gazteei kulturara sarbidea berdintasun baldintzetan galarazten duen hura.
64. Txoko kultural eta politiko alternatibo autogestionatuen kriminalizazioari stop! (Gaztetxeak, Okupak, etab...)
65. Gazteei zuzendutako Babes Ofizialeko Etxebizitzaren erreserbaren gehitzea.

Euskadi integratzaile baterako proposamenak

66. Pertsona etorkinen eta euskal hiritarren arteko berdintasun juridikoa sustatzea, lan-integrazioa eta integrazio soziala, eta orokorrean, beren beharrezanetarako tratu duina eta justua.
67. Euskadi, sarekada eta arrazakeriaz libre dagoen lurralde bezala deklaratzeko Eusko Legebiltzarraren erakunde adierazpena.
68. Euskadin, pertsona etorkinen eskubide eta betebeharrak lege bat onartzea
69. Etorkinen elkartegintzaren sustapena.
70. Euskadin asilo eta babes eskubidea eskatzen duten pertsona guztiei bermatzea.

Euskadi kulturantz eta eleanitz baterako proposamenak

71. Euskararen doako irakaskuntzarako eskubidea bermatzea, inork bere lanorduak direla eta, familia bizitzarekin bateragarritasuna edota bitarteko ekonomiko falta dela eta ikasi gabe geratu ez dadin.
72. Euskararen erabileraren sustatzea, benetako gizarte elebidun batera heldu arte.
73. Kalitatezko EITB bat bermatzeko beharrezko bitartekoak jartzea.
74. Euskal kulturaren sustatzea, hau, Euskadin ekoizten den kulturaren adierazpen ezberdinak bezala ulertuta, burututako hizkuntza kontutan izan gabe.
75. Diru-laguntza publikoen programa, BEZaren erreforma pairatzen duten kultur produktuen sustapenerako.

Elkartasunean oinarritutako Euskadi baterako proposamenak

76. Euskadiren nazioarteko presentzia sustatzea, mugarteko akordioen bitartez, europar politikan parte-hartze aktiboa izanez, eta munduko herri eta nazio ezberdinekin laguntasun eta elkartasun harremanak sustatzea.
77. Legealdi honetako EAEko Aurrekontu Orokorretan 0,7% Garapen eta Lankidetzaren bideratzeko konpromisoa.
78. Lankidetzarako Euskal Kontseiluaren indartzea, eskuduntza exekutiboekin doituz Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren definizioan. Horrela, euskal gizartea nazioarteko agendaren eraikuntzan parte-hartze aktiboa izatea ahalbidetuz.
79. Garapenerako lankidetzaren euskal agentziaren eguneroko lanean diharduten eragileen egoera malgutu eta hurbiltzea, agentziaren funtzionamendua malgutuz. Gainera, eragileentzako zeharkako babes eta laguntza programa bat martxan jartzean proposatzen dugu (materiala, formakuntza...)
80. Kanpoan dauden Euskal Etxe eta Kolektibitateen babes eta indartzea, eta, Etxepare Institutuaren paperaren indartzea, Euskadirentzako nazioarteko zabaltze eta difusiorako tresna giza.

Euskadi parte-hartzaile baterako proposamenak

- 81.** Hiritarren Parte-Hartzerako Legea, erabakiak hartzerako momentuan hiritarren parte-hartzea bermatzeko, erreferendumak barne.
- 82.** Legegintzako Herri-Ekimenak burutzeko bidea erraztea, gizarte jatorria duten proposamenak helaraztea bermatzeko eta interes orokorreko gaietan maila ezberdinetan erreferendum sistema bat ezarri eta sustatzea.
- 83.** Lehendakaritzara atxikituta dagoen Hiritarren Parte-Hartzerako Euskal Agentzia sortzea, gobernu esparruotan, metodo parte-hartzaileak ezartzeko xedearekin. Era berean, lekuko erakundeen eta bestelako instituzioen prozesu parte-hartzaileak lagundu eta sustatzeko eskumena izango du, gizarte zibilarekin harreman estua mantenduz.
- 84.** Kudeaketa eta erabaki publikoetan E-Demokrazia prozesuen ezarpena bultzatzea eta sustatzea. Era berean, gizartearen alfabetizazio teknologikoan aurrera egitea eta tresna ezberdinetara heltzeko doakotasuna.
- 85.** Kudeaketa Publikoan Gardentasunerako Legea, parte-hartzea gobernuaren eta hiritarren artean era berdinkor batean emanez.

Haurrak zaindu eta pertsona nagusiak errespetatzen dituen Euskadi baterako proposamenak

- 86.** Nagusien parte-hartze eta gizartean ikustaraztea parte-hartze kontseiluen bitartez, zentro eta bitartekoez doitu eta euren protagonismo eta inplikazioa bermatzen dituzten ekimenak sortuz.
- 87.** Bitarteko sozio-komunitarioak era erabilerrazean garatzea, bizitza kalitatea bermatzeko, autonomia garatzeko eta gizarte eta familia inguruaren barnean mantentzeko.
- 88.** Menpekotasun Legearen aplikazioak familia zaintzaileengan karga ekonomiko edota emozionala ez sortzea bermatzea. Dependientea den eta beharrezkotzat jotzen duen edozein pertsonak egoitzan plaza bat izatea, zein inolaz ere, bere erretiroaren %85etik gora ez doan.
- 89.** Komunitate zerbitzuak bitartekoekin doitzea, haurren babes falta ekiditeko: Aurreikuspen

eta interbentzio programak garatuz, arriskuan dauden familia testuinguru eta familietan.

90. Batez ere haur txikiaren kasuan, familia harrerei, bai denbora baterako bai behin betikoen kasuan errekursoak lehenestea. Erresidentzialen eliminazio progresiboa.

Euskadi jasangarri baterako proposamenak

91. Mugikortasun eta garraio eskuduntzak berrantolatzea helburutzat duen Mugikortasun Legea, administrazio maila ezberdinek sortutako balizko koordinazio falta ekiditea eta ordura arte, gaitasun handiko errepideen eraikuntzan luzamendua.
92. Lurraldearen Antolaketarako Zuzenbideen behin behineko geldiaraztea, EAEko ikuspegi orokorra ematen ez duelako, soilik lurraldeka kontutan izanda, lurralde bakoitzean azpiegitura handiak kokatzean indarra eginez, horien bidegarritasuna edo bikoiztasuna kontutan izan gabe. Pasaiaiko portuaren birsortzea, kanpo portuaren eta Lezo-Gaintxurizketa azpiegitura plataformaren proiektuak deuseztatuz.
93. EAetik dabilen hurbileko tren sarearen (azpiegitura eta material ibiltaria) transferentzia (FEVE barne)
94. EuskoTrenen sarearen birtolestea A-8ari tren alternatiba bat sortuz, Irunerako birtolesteari lehentasuna emanez. Eibar-Zumarraga edo Castorako trenen eraikuntza.
95. Errepidez egindako Udalerrien arteko garraioa, kontzesio bitartekoa eta lurraldeka ezberdina izan beharrean sare bakar eta publikoa bihurtzeko urte askotako plana.

Irisgarritasunetik unibertsalera inklusiboa den Euskadi baterako proposamenak

96. Menpekotasun Legearen finantziario eta kudeaketa osoa, murrizketarik gabe, bere garapenean norbanakoaren autonomiaren sustapenari lehentasuna emanez, etxebizitza eta komunitate laguntzari bitartekoak emanez, eta zerbitzu publikoen aurreikuspena eginez, gizarte erantzukizuna familiei, hau da, emakume zaintzaileei ez pasatzeko.
97. Ezintasuna duten pertsonen autonomia sustatzea, elkartegintzari babesa handituz, erakunde eta gizarte parte-hartzea indartuz eta merezi duten protagonismo eta ikustaraztea bermatuz.
98. Moldatutako garraioaren nahikotasuna bermatzea eta barrera arkitektonikoen eliminazioa,

beti ere “irisgarritasun unibertsal” printzipioa kontutan izanda espazioaren eta hiri ekipamenduen antolakuntzan.

- 99.** Ezintasuna duten pertsonen kasuan lanpostu erreserba era efektiboan aplikatzea- %2a enpresa pribatuetan eta %5 administrazioan- eta, era berean, lan babestuaren eta enplegu zentro berezien sustapen eta laguntza publikoa ematea.
- 100.** Ezintasuna duten pertsonentzat etxebizitzarako eskubidea irisgarria egitea: Babesdun etxebizitza erreserba sortzea, moldaketa eta barne irisgarritasuna. Etxebizitza komunitario eta partekatuen sustapena, tutelapeko etxebizitzaren eskaintza handitzea, etab...